



Astekaria



elgoi





# Garbiñe

## EDERGINTZA

GOPUTZ GUZTIKO  
DEPILAZIOAK

- Beroa
- Temperatura bajukoa
- Elekrikoa
- 

AURPEGIKO  
TRATAMENDUAK  
ETA MAKILAIK

- Azido glikolikoa
- Kateobital
- Hidratazioa
- Regenerazioa
- Zimurren aurkakoa
- Aurpegi garbiketak
- 

GORPUTZEKO  
TRATAMENDUAK  
MANIKURA-PEDIKURA

- Reafirmanteak
- Zelulitis tratamenduak
- Masajeak
- Paparreko liftina

## SOLARIUM-a

Mantendu bizirik zure azala

## ENPRESA ETA INSTITUZIOEI OHARRA

Eskualdeak: Deba Garaia, Deba Behea, Urola, Goierri eta inguruneak

Zure bulegoan, tailerrean, irakasle gelan,  
bilera gelan instalatzen dizugu.

### GUZTIZ DOHAIN

### KAFE EXPRESS ETA EDARI BEROEN MAKINAK

**Espezialistak gara:** industria  
txiki eta ertainaren zerbitzuan,  
lantokian bertan laguntza teknikoa  
eta produktuen suministroa eskainiz.

**Ekipamendua:** txanpon edo  
fitzekin funtzionatzen duen  
ekipamendu tekniko modernoak,  
Europako vending merkatuan liderrak.

**Eskaintzen ditugun zerbitzuak:** Kafe express,  
kafe luzea, kafetesnea, ebakia,  
deskafeinatua, esnea, txokolata,  
cappuchino eta infusioak.



Eska ezazu informazioa  
konpromezunik gabe:

Tel 76 38 52  
Fax 76 09 14

*Bending*  
*Bergara*

Kalitate haundiko vending zerbitzua

elgoi**BARREN**  
Nafarroa enparantza 2  
☎ 74 41 12

**ARGITARATZAILEA:**

Elgoibarko Izarra.

**LAGUNTZAILEA:**

Elgoibarko Udala.

**ZUZENDARIA:**

Alberto Agirreazaldegi.

**HIZKUNTZA ARDURADUNA:**

Anjel Ugarteburu.

**ERREDAKZIO KONTSELUA:**

Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua.

**KAZETARIAK:**

Ainhua Lodoso,  
Jasone Osoro.

**MAKETATZAILEAK:**

Maite Rementería,  
Edu Sanz.

**PUBLIZTATEA:**

Nekane Etxaniz.

**ADMINISTRAZIOA:**

Josune Fernandez,  
M. Angeles Ortuoste.

**KOLABORATZAILEAK:**

Andres Alberdi, Esteban Antxustegi, Pello Arrieta, Felix Arrizabalaga, Belen Arrizabalaga, Mikel Artola, Mikel Cornejo, Izaskun Elizburu, Jon Etxabe, Jon Eugi, Koldo Galdona, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Joseba Gorosabel, Lorea Gorostiaga, Xabier Gorriti, Ana Igartua, Maite Iriondo, KOKOE, Joseba Konde, Edurne Kortia, Imanol Larrañaga, Antonio Matias, Julian Mujika, Susana Mujika, Maite Solozabal, Karmelo Urdangarin, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta.

**BANAKETA ARDURADUNA:**

Imanol Larrañaga

**INPRIMATEGIA:**

Gertu koop. E.  
(Zubillaga Oñati)

**TIRADA:** 3.500 ale

**LEGE GORDAILUA:** SS-1.038/92

**ISSN:** 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



# Gaur eguneko emakumea

**A**zken egunotan, emakumearen ingurukoak izan ditugu mintzagai edo hizpide nagusi bazter guztietan. Izan ere, martxoaren 8ko ospakizuna gogoetarako une ezinhobea eta hitz-aspertu eta idatzi ugariren sorburua izan ohi da. Ni ez nauzue, oro har, horrelako edo halako oroigarri jakinen oso aldekoa, gehienetan, egunean-egunean burutu beharreko ahalegin, lan eta ihardunak egun bakarreko kontu huts besterik ez baitira bihurtzen. Dena dela, aipaturiko jaia niretzat berezia izaten da benetan, eta gogora ekartzen dizkidan burutazio eta sentimenduak hemen isladatzen hasiko banintz, oso luze joko luke. Baina bada, besteak beste, aipatzekoa deritzodan kontu bat.

Komunikabideek hainbat eredu edo jarraibide ezartzen dizkigute bizitzaren arlo guztietarako, eta gizartea nolakoa komunikabideen mezua halakoa izan ordez, alde-rantzizkoa du egungo gizarteak ezaugarri. Emakumeei dagokigunean, hor dabilkigu iragarkiz-iragarki "gaur-eguneko emakumea", "90 hamarkadako emakumea" edo antzeko izenez bataiatu duten hori. Eta nolakoa da, bada, "10" emakume modernoaren ustezko eredu? Ez da ez betiko etxekoan-dre-garbikari erabile-familiaren aingeru guardakoa, ezta ere Jack famatuaren atzetik burua galduta dabilen emakumetzarra.


Iragarkietako emakume modernoak etxetik kanpora egiten du lan, bai, baina ez edozertan, exekutibo-lanetan, goi-mailako edo erantzunkizun handiko zereginetan izaten

baitugu ikusgai. Egun osoa lanean eman ondoren, egundoko ibilgailu dizdiratsua hartu eta luxuzko etxe batera joaten da. Bertan, txukun-txukun izaten du dena, eta oraindik indarrez gainezka izaki, bere burua apaindu eta, liluragarri eta ikusgarri dagoela, kalera ateratzen da berriz, bikotearekin batera gaueko haize gozoak dastatzera. Emakume hori, bestalde, liraina eta lerdenda; grasa izpirik gabeko gorpuzkera argala da berea, zelulitis aztarnarik txikiena ere debekatuta duena. Light jangaien eta era guztietako krema txikitzaileen menpekooa dugu beraz. Halaber, zimurren aurkako eten-gabeko burruka bizian dago murgilduta buru-belarri, ezinbestekoa baita beti gazte egotea, urteek utziriko aztarna guztiak zeharo ezabatzea. Hori lortzeko, Dorian Gray-rena egiterik ez duenez, hainbeste ungentu miragarri ditu aukeran, gaitzerdi! Honako berezitasunak ere egozten dizkiote barra-barra: burujabea, dinamikoa, zer nahi duen argi eta garbi dakiena...

Nik ezagutzen ditudan emakumeak, ordea, oso bestelakoak dira: inolako esker onik jaso gabe bizitza osoa etxeko lanetan eman dutenak, gizonezkoen lan berbera eginagatik gutxiago ordaintzen zaienak, emakumezkoak izateagatik beraien lanbideetan eragozpen ugari aurre egin behar diotenak, lanaldia bukatu eta etxeko zein seme-alaben jira guztiei ekin behar izaten diotenak... Hitz batean, gizonezkoena den mundu honetan ahal duten moduan aurrera egiten dutenak.

**Maite Solozabal**

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*





## GALDERAK

- Urasandiko irakurle baten galdera: **Jasotzen al dituzte postariak (karteroek) Urasandiko buzoiko kartak?** Bertan sartutako zenbait gutun ez dira behar zuten tokira iritsi.
- Postetxeko zuzendariarekin egon gara eta honek baietz erantzun digu. Egutero (larunbat eta igandetan ezik) pasatzen dela postaria eguerdiko 12etan. Dena den, norbaitek kebaren bat baldin badauka, Postetxetik pasatzeko gonbitea luzatu dio.



## KEXAK

Hona hemen batek ekarri digun kexa: "Bada ordua Udalak kontzertuetarako leku itxi bat edukitzeko edo prestatzeko, hotzaren eta euriaren babesleku gisa erabiltzeko. Frontoiak eta polikiroldegiak ez dira leku egokiak eta Herriko Antzokia ez badago erabiltzerik, neguan ez al dago kontzerturik antolatzerik?"



## TXALOAK

Ama talde batek ihauteri asteartean umeentzako antolatuz jaialdia ipini zutenak txalotu nahi ditu. Orain arte txaranga irten arte ez omen zen ezer egoten eta aurten umeek oso ondo pasa dute.

# ESKUTITZAK

## Baso garbiketari buruz

# 1995

eko martxoaren 3ko 98.

zenbakian Juanito Zapirainek idatzitakoaren inguruan nire iritzia luzatu nahi nuke.

Lehenengoz esan nahi nuke sua sortzearen arrazoia ez dela basoak zikin egotearena bakarrik, baita ere, neglijentziak, arrazoi naturalak, istripuak (hau da, tentsio altuko eta trenbideetako kableak), jendeak nahita ematen diolako su eta azkenik arrazoirik jakin gabe agertzen diren suak. Beraz, mendia zikin egotea ez da sortzen diren suteen arrazoirik nagusia, baina mendi zikinak garrantzi handia du suaren eboluzioan.

Bigarren puntu bezala zera adierazi nahi nuke: jendeak *pinus radiata* (Insignis) sartzen duenean lurretan, helburua ahalik eta produkzio ekonomiko handiena ateratzea da. Beraz, ez litzateke oso logikoa izango pagoa edo haritza sartzea, beraien turnoak oso altuak baitira, batez ere pagoarena 100-125 urte inguru behar dituelarik. Beste arazo bat ere badago, izan ere, espezie hauek ezin baitaitezke moztu baimen berezirik gabe eta gaur egun ia ezinezkoa da baimen hori lortzea.

Bestalde, *abeto douglas* -ek duen turno 60 urte ingurukoa da eta espezie honetatik ateratzen den produkzioa ez da insignis-ena bezalakoa.

Bukatzeko bi gauza aipatu nahi nituzke:

1- Insignis pinua sartzen duen jendeak bere helburua garbi du, hau da, produkzio ekonomikorik handiena lortzea. Beraz, suteak ebitatzeko lehen aipatu ditudan puntuak ebitatzen saiatu beharko ginake, mendiak garbitzea barne, baina hori bakoitzaren gain dago.

2- Azkenik, beste puntu garrantzitsu bat: pinuari esker lanpostu asko daude eta hau oso garrantzitsua da gure gizartean, batez ere gaur egun.

I. L. A.



**Azalean sartu dugun marrazkia Joseba Arrillaga mutiko gazteak eginikoa da. Martxoaren 8a ospatzeko zenbait ekintza antolatu dira eta horien artean Kultur Etxeko ganbaran erakusketak bat dago hilaren 19ra arte. Bertan, OHoko 7. eta 8. mailako hurrek, etxeko lanen banaketari buruz egin dituzten marrazkiak ikus daitezke. Horien artetik aukeratu dugu Josebaren marrazkia.**

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK





**A**ste honetako erretratua **Maria Arantzazu Gabilondok** lagatakoa da. Mende erdi-erdian ateratakoa dugu, 1950. urtean. Arantzazuk esan digunez, erretratua igande goiz batean ateratakoa izango da. Zein tabernatan elkartu ziren hainbeste “golfo”? Berak dionez **Bar Zabala**, “Potxoko”, da argazkiko taberna. Gaur egun Bar Avenida dagoen tokian omen zegoen “Potxoko” taberna. Ikus dezagun


zeintzuk osatzen zuten igande goizeko ajeak ezagutzen ez zituen gizon kuadrila hau:

Ezkerretik hasita:

**Juan Jose arrillaga** “Rioja”, **Ignacio Mugerza** “Ruso”, **Juanito Arrieta** “Lerun Txiki”, **Eduardo Irusta**, **Bizente Zubiaurre** “Valle”, **Bitor Arrizabalaga**, **Santi Zuazubizkar** “Askar” (†), **Julian Mujika**, **Alberto Ezenarro** “Kakume” (†), **Ignacio Barrenetxea** “Borrajén”, **Hipólito Gabilondo** (†) eta **Pantaleon Zabala** “Potxoko” (†), azken hau tabernaren jabea.

**KEMEN** Belardenda  
MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN  
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA  
REFLEXOTERAPIA  
San Bartolome 25. Tel: 74 40 31

**TXURI BELTZ**  
Taberna  
San Franzisko 38

  
**GAIXOTASUN ASEGURUA**  
■ INTERBENTZIO KIRURGIKOA  
■ HOPITALIZAZIOA  
Pedro Muguruza 4 behea. ELGOIBAR. ☎ 74 26 99

# Laguntza ez, banaketa da hitza



Martxoaren 8an Emakumeen Eguna ospatzen da. Horren inguruan zenbait ekintza antolatu dituzte Elgoibarko Emakume taldeek eta Udaletxeak elkarlanean eta oraindik ere astean zehar izango dugu zer ikusi eta entzunik. Guk ere gai honi heldu nahi izan diogu, batez ere emakumea eta lan mundua bai eta etxeko lanak ere aztertuz. Eta zer hobeagorik, lana-familia binomioa ondo baino hobeto uztartu dituen emakume baten eredia baino. Emakumearen papera ez da oso duina izan historian zehar. Zorionez gauzak asko aldatu dira, besteak beste, emakumeari lan mundua ireki zaio eta honek, gizarte berri bat markatu du.

**P**ertsonak jaio ahala nesken edo mutilen zakuan banatzen ditugu. Rol konkretu batzuk ezartzen zaizkie eta horien arabera izango da, neurri handi batean, aurreantzean izango duten bizitza. Jolasak halakoak edo bestelakoak izango dira. Neskatilak sokasaltoan eta muñeekin ematen duten bitartean

denbora, mutikoak futbolearen eta zuhaitzetara igotzen ibiltzen dira. Gaztetan neskak politikaz izatearen "garrantziak" ohartzen dira mutilak "indartsu" bilakatzen doazen neurrian. Zorionez heziketaren bidetik bi sexuen arteko ezberdintasuna baretzen hasi da eta, dirudienez, gaur egungo neska gazteen "betebehar" bakarra ez da ezkondu, seme-

alabak izan eta etxeko lanez arduratzea. Halere, eta datuek zerbaite-rako balio badute, taulan ikus daitekeenaren arabera, badirudi, oraindik orain, etxerik gehienetan emakumearen esku geratzen dela etxeko lanen pisurik handiena.

Unibertsitatara iritsi da emakumea, enpresa munduan sartzerik izan du, politikariak ere baditugu,

## EMAKUMEA ETA LANA ELGOIBARREN

EMAKUMEA ETA LANA	
Okupatuak .....	1.044
1. enpleguaren bila .....	247
Lan egin duten langabetuak .....	127
Ez aktiboak .....	247
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>758</b>

ITURRIA: EUSTAT (1991.eko datuak)

LANGABETUEN KOPURUA	
Gizonezkoak .....	333
Emakumezkoak .....	425
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>758</b>

ITURRIA: INEM (1995eko urtarrilaren 31ko datuak)

EMAKUME LANGABETUAK ADINAREN ARABERA	
- 20 .....	27
20-29 .....	199
30-39 .....	108
40-49 .....	63
50-59 .....	24
59+ .....	4
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>425</b>

taxi bat hartu eta ez gara harritzen gidaria emakumea dela ikusten badugu, baina... Anbizioa, gizonen koe pibilegio, emakume baten izaeran akats bezala kontsideratzen da, emakumezkoak apala eta tokatzen zaionarekin konformatzen dena izan behar duela dirudi, hala sinestartarazi digute. Emakumeak bere tokia aldarrikatu du eta borroka horretatik zenbait puntu lortu dituen arren, ez gara egoera normalizatu batera iritsi. Egungo krisia dela eta, behin baino gehiagotan entzun izan dira ondoko komentarioak, "emakumea etxean geratuko balitz, ez litzateke horrenbeste langabeturik egongo".

Emakumea lan mundura atera izanak izugarritzko aldaketa suposatu du gizartean orohar. Aukeratzea emakumearen eskubide bilakatu da. Batzuek etxeko lanak gustuko dituzte. Beste batzuek etxetik kanpo lan egitea nahiago dute, beraientzat aberasgarria delako eta independentzia ere ematen duelako, askatasuna, inoren menpe ez bizitzea. Azken hauek, halere, etxera iristean erosketak egiteaz arduratu behar dira, janariaz, seme-alabez... Lana bikoiztu egin zaie emakumeei. Laguntzaz baino lan banaketaz hitzeging behar da, etxeko lanak ez baitira emakumearen betebeharra, etxe berean bizi diren guztien ardurabaizik. Garapena hitz polita da baldin eta gizarte hobea baterantz eramaten bagaitu. Guztion esku dago hala izatea.

## MARIA ANTONIA SAN SEBASTIAN:

# "Lanak independentzia ematen du eta independentziak askatasuna"

Hamahiru neska ziren gelan eta berrehun inguru mutil. Medikuntza ikasi zuen eta analisi klinikoetan espezializatu zen. Ezkondu, zazpi seme-alaba izan zituen eta, halere, ez zuen lana utzi. Lana eta familia, familia eta etxea binomioa lotu daiteke, "ez dago dudarik".

- Zure garaian ez zen oso arrunta emakume batek medikuntza ikastea.

- Ez medikuntza, ez beste ezer ere. Zorionez nire ama oso irekia zen. Bera, bai eta amama ere, irakasleak izan dira eta etxetik kanpo egin izan dute lan, nik etxean bizi izan dudana zerbait da eta horrek eragina izan du nigan. Amak beti esaten zidan ikasteko eta ahal izanez gero, lan egiteko. Eta hala egin dut.

- Zazpi seme-alaba dituzu. Nola moldatu zara?

- Etxeko lanak egiten eta haurrak zaintzen laguntzen didan emakume bat izan dut beti eta kontsulta pribatua etxean bertan edukitzeak posible egin dit etengabeko kon-

taktua izatea bai etxearekin bai eta familiarekin ere. Gainera gurean denon artean egiten ditugu gauzak, sei seme eta alaba bakarra ditut eta denek heziketa berdina jaso dute.

- Damutu izan al zara lana ez uzteaz?

- Ez, inundik inora. Biek, lanak eta familiak asko aberastu naute, bietatik bakararra aukeratuz gero, bestearen falta nabaritukenuke.

- Zein aholku ematen diezu seme-alabei?

- Denei esan diet niri esan zidaten berdina, ikastea eta lan egitea oso garrantzitsua dela pertsona ororen bizitzan, bai ekonomikoki, bai eta pertsona bezala aberasgarria delako ere. Lanak independentzia ematen du eta independente izateak askatasuna.



## NORK EGITEN DITU ETXEKO LANAK, SEXUAREN ETA EMAKUMEEN I HARDUERAREN ARABERA

	EMAKUME LANDUNAK	ETXEKOANDREAK JUBILATUAK	EMAKUME LANGABETUAK	GUZTIRA	GIZONEN ERANTZUNAK	GUZTIRA
Emakumeek bakarrik	%43,3	%65,9	%51,0	%56,6	%45,5	%54
Emakumeek batez ere	%30,1	%22,7	%33,7	%27,1	%32,3	%28,4
Emakumeek eta gizonak	%26,4	%11,2	%14,9	%16,1	%19,8	%16,9
Gizonak batez ere	%0,3	%0,1	%0,3	%0,2	%0,7	%0,3
Gizonak bakarrik	-	-	-	%7,0	%7,0	-

ITURRIA: 1991n Emakunde 1.314 emakume eta 415 gizonen artean eginiko inkesta

## Etxeko lanen banaketa

**G**izartean azken urteetan bizi diren aldaketa sozio-kulturalan emakumeok ere eboluzio handia izan dugu. Era honetan, gure etorkizuna planifikatzeko aukera eskuratu dugu. Aldaketa guzti hauen artean emakumeok lan munduan murgiltzea lortu dugu, gure sexualitatea kontrolatzera heldu gara (antisorgailuei esker), noiz eta zenbat ume eduki nahi dugun aukera dezakegu...

Lorpen guzti hauek direla eta ez direla, gai gara gure bizitzarekin zer egin nahi dugun erabakitzeke. Horretarako AUKERA IZATEA edo ez izatea beste arazo bat da. Azken finean, emakume-ama-emazte-etxe-koandre eskema apurtzerik egon da. Hala nola, lana helburutzat izan duten emakumeek hezkuntza intelektual edo profesionalera heltzeko aukera izan dute.

Emakumea lan munduan sartzea eboluzio ikaragarria izan da baina horrek ez du pareko aldaketarik ekarri etxeko lanak guregain izaten jarraitzen baitute, era honetara lana bikoiztu egiten zaigularik (gizonekin lehiatu beharra, etxeko lanak,

umeak...).

Gainera etxeko lanek ez dute ezer produzitzen, beraz, ez dago zer ordaindu eta, ondorioz, ez zaie garrantzirik ematen. Emakumezko eta gizonezkoak txikitatik jaso izan dugun heziketan etxeko lanak emakumeonak soilik direnaren ideia barneratu dugu. Badakigu etxeko lanak esker txarrekoak direla baina honek ez du esan nahi emakumeonak soilik direnik. Horregatik gizonezkoek etxeko lanetan parte hartu behar dute eta hori berdintasuna lortzeko pausu garrantzitsua izango da.



IRUNE BETELU

San Frantzisko, 4  
Tel. 74 07 35

San Frantzisko 8 ☎ 74 02 30

**ELENA**  
ileapaindegia  
Depilazio Elektrikoa  
San Frantzisko 49-1 tel. 74 11 89

**XABIER**  
ILEAPAINDEGIA  
*Eskatu eguna eta ordua*  
San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

San Frantzisko 23  
ELGOIBAR

**magu's**  
ILEAPAINDEGIA  
EDERGINTZA  
San Roke 6 behea tel. 74 34 91

San Frantzisko 12-14, Tel. 74 05 49

San Bartolome 18  
☎ 74 08 49

Errosario 30  
tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

**OIERKI** IGONGAILUAK  
Urrutira deitu gabe bertakook segiduan konponduko dizugu igongailua  
☎ (943) 11 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 11 35 15  
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR



## Nork egiten ditu zuenean etxeko lanak?



### **ITZIAR ONDARRA**

**32 urte, irakaslea**

Gure kasuan senarrak eta biok egiten dugu lan etxetik kanpo, beraz, banatu bihar. Norbait paroa egongo balitz bera arduratuko litzateke.



### **ESTHER LLUVIA**

**60 urte, etxekoandrea**

Dana nik itxen dot, ez die laguntzen ezer. Gizona etxian dao baina lehen hola ohixu gintxuen eta lanok emakumianak izan dia.



### **ANGEL PEREZ**

**55 urte, langabetua**

Emakumeak egiten ditu batez ere eta alabak. Nik erosketak egiten laguntzen diot, gehiago banatu beharko lirateke baina...



### **MIKEL ESNAOLA**

**42 urte, fresadorea**

Danon artian, bakoitzak zeozer hartzen dau. Nik etxetik kanpo itxen dot lan baina ahalegina egin bihar da. Ez dakat problemarik.



### **INAKI ALBERDI**

**37 urte, tabernaria**

Normalian danon artian egiten dogu, bueno ohiak eta holakuak ez. Ama badao berak itxen dau gehixen baina falta bada ez dakagu problemarik.



### **JONE ARIZNABARRETA**

**27 urte, Plazentziako ludotekako langilea**

Banatu itxen ditzugu, nik arratsaldez itxen dotenez lan, goizekua neri tokatzen jata. Gizona edozer itxeko prest egoten da. Afarixa berak preparatzen ditz.

**ASESORIA  
GOIAR**

**AHOLKULARITZA**

- . KONTABILITATEA
- . AHOLKULARITZA FISKALA
- . LAN AHOLKULARITZA
- . ALLIANZ ERCOS ASEGURUAk
- . MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAk

San Bartolome 1 behea. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29

**elgoibar**

## ■ HBk lau urteotako balorazioa egin zuen

Herri Batasunak azken lau urteotako balorapena egin zuen joan den ostiraleko prentsaurrekoan. Egitura munizipalari buruzko balorazioa egitean, "herritarrek ez dute ezagutzen Udaletxearen egitura eta ezagutu beharko lukete" azaldu zuten. PNVk lau urte hauetan eraman duen politika salatu zuten, besteak beste, "hilabeteko plenoak zirenak hiru hilabeteko bihurtu dira eta herritarrei plenoetan parte hartzeko eskubidea ukatu zaie". Bigarrenik beraiek egindako akatsak aipatu zituzten, "HBren ardatza herriko kolektibo guztiakin harreman zuzena izatea izan da beti baina uste dugu lau urte hauetan ez dugula harreman hori mantendu. Ez gara kapaz izan Udaletxea herriari hurbiltzeko ez eta herria Udaletxera hurbiltzeko ere. Nolabait, PNVren politikaren arabera mugitu gera, emendakinak jartzen eta gure propuestak aurkezten, konturatu gabe gure proiektua ahaztuz". Aspektu positiboak ere azpimarratu zituzten, "Akatsak izan du alde positiborik. PNVk egin nahi izan duen guztia bere interesei begiratuta izan da eta HB etengabeen beraien ganean egoteak desgaste bat suposatu du beraientzat". Bukatzeko HBren ustetan lorpenik handiena izan denaren berri eman zuten, "Herriko Antzokia berritzea eta legeztatua ikustea."

## ■ Batzar Nagusia egongo da Zaharren Biltokian

Martxoaren 24ean, ostirala, jubilatuen eta pentsidunen ohizko batzarre nagusia izango da Zaharren Biltokian. Arratsaldeko 6etan emango zaio hasera bilerari eta lehenbizi 1994ko ekintza eta gestioen berri emango du Iñaki Insausti lehendakariak. Ondoren 1994 urteko diru sarrera eta irteeren gorabeherak komentatuko dira eta bukaera aldera galderen tartea izango da.

## DANOBATek puntako makinak saldu ditu Indonesian eta Erresuma Batuan



**D**ANOBAT enpresak bi makina berri saldu ditu. *Dantip* modelua Indonesiako *Nusuntara* enpresak erosi du eta hegazkinetako motorren alabeak rektifikatzeko da. Bigarren makina, *Danplang* izenekoa, Erresuma Batuko *British Airways* konpainiak erosi du eta kasu honetan lurreratzeko trenarentzat erabiltzen da. *Dantip* eta

*Danplan* izeneko DANOBAT rektifikadoreak azken aurrerapen teknikoak dituzte, rektifikatu teknologia aldetik, bai eta erreminta-makina aldetik ere. Seguritate sistema mekaniko eta elketrikoak dituzte, makinaren funtzionamendua bermatzen dutelarik. Makina hauek erreminta-makinaren abanguardian aurkitzen dira mundu mailan.



**Elgoibarko Herri Eskolak** joan zen larunbatean "Ateak Ireki" eguna ospatu zuen. Ikasleek aipatu egunean parte hartu zuten hainbat eta hainbat ekintzatan beraien trebetasunak azalduz: bertsoetan, dantzan, antzezlanetan...Hurbildu ziren guztiek, jaialdia ikusteaz gain, ikastetxeko instalakuntzak ikusi eta beste zenbait ekintzatan parte hartzeko aukera izan zuten. Herri Eskolak guraso, ikasle eta elgoibartarregandik jasotako laguntza eta harrera eskertu nahi du.



**Martxoaren 8ko ospakizunak** joan den larunbatean hasi ziren. Astebukaera osoan emakumeei buruzko liburu eta konpaktoak eros zitezkeen King-Kongean egon zen postuan. Igandean irratsaio berezia izan zen Elgoibarko emakume idazleen partehartzearekin eta astelehenean, sexualitateari buruzko hitzaldia entzuterako dexente emakume hurreratu ziren Kultur Etxera. Ostegunean gustu guztietarako ekintzak izan ziren, txintxon txapelketa eta “Modelo clowntrapublicitaria” antzezlanak. Aste honetan zehar ere zenbait ekintza egongo dira ospakizun hau dela eta. Era berean, Lanbide Eskolan hitzaldia izan zen asteazkenean emakumezko ikasle ohi batzuen eskutik.



**Jazz kontzertu** batekin hasi ziren Musikeskolaren 10. urteurrena ospatzeko ekintzak joan den ostiralean. “Andrezj Olejniczak-Iñaki Salvador Quartet” taldearen eskutik saio bikain bat entzuteko aukera izan zuten Herriko Antzokira hurreratu ziren pertsonak. Datozen hilabeteetan beste zenbait ekintza ere izango dira, abesbatzak eta akordeoi kontzertuak, besteak beste.

## ■ Odol ateraldia

Datorren ostiralean hilak 17 odol ateraldia izango da. Era berean, odol emaile izan nahi duten guztiak bazkide egin daitezke lokalean izena emanaz arratsaldeko 6,30ak eta 8,30ak bitartean. Deialdia herritar guztiei zabaltzen zaie, batez ere 18 urtetik gora dutenei.

## ■ Institutuaren oharra

Zenbait diri erantzun nahirik, Herriko Institutuko zuzendaritzak ohar bat luzatu du, irakaskuntza ertainetako aurre-matrikulazio epea Aste santua pasa ondoren izango dela jakin araziz. Bere garaian izango dute ikasleek eta gurasoek guzti honen berri.

## ■ Korrikaren aldeko dirubilketa larunbatean

KORRIKAREN 9. edizioa martxoaren 17an hasiko da. Hori dela eta hilaren 11n, larunbata, Korrikaren aldeko dirubilketa egingo da Elgoibarko kaleetan, AEK euskaltegiak antolatua eta herriko zenbait talderen laguntzarekin. Dirubilketa goizeko 11etatik aurrera izango da.

## ■ Elgoibarko tanborrada

Elgoibarko kuadrila guztiei jankinarazi nahi zaie hurrengo larunbatean, martxoak 11, nagusien tanborrada berreskuratzeko bigarren bilera egingo dela Kultur Etxean, goizeko 11etan. Nahiz eta aurreko bilerara kuadrila batzuk azaldu ziren, beste guztiei ireki nahi zaie deialdia, ahalik eta jende gehiena anima dadin.

## ■ Eskalada eta fondoko eski ikastaroak

Morkaikok jakin arazi duenez, datorren astelehenean hasiko dira eskalada ikastaroak federatuak daudenez bai eta federatugabeentzat ere. Ikastaroak hilabeteko iraupena du eta 2.000 ptako kostua dauka ikasleentzat, 3.000 pta langabetuentzat eta 5.000 gainontzekoentzat. Bestalde, martxoaren 18-19 astebukaerarako fondoko eski ikastaro bat antolatu du Morkaikok. Belaguan izango da eta izena emateko azkar ibili behar da plazak mugatuak baitira.

## ■ Autobusa Donostiako manifestaziora

Larunbatean “Euskal Herria bizi dadin, autodeterminazioa” lemapean antolatu den manifestaldira joateko autobusa antolatu du Herri Batasunak. Irteera arratsaldeko 4etan izango da, Plaza Haundian. Izena emateko, ohizko tokietara jo daiteke.

Edurne Lasa:

## "Helburua antzerkiaren bidez euskara leku guztietara eramatea da"

Edurne Lasa irakaslea da lanbidez. Halere, afizioa eta ogibidea nahasten ditu, Taupada antzerki taldeko kide baita eta haurrei antzerki tailerrak ematen baitizkie. Urteak daramazki

Taupadan baina oraindik ere urduri jartzen da emanaldi bakoitzaren aurretik. Komunikatzea gustatzen zaio eta gauzak ez ditu egiten egiteagatik, mezu bat bidali nahi duelako baizik.

- Irakaslea ala aktorea?

- Lanarekin zorte handia dut gauza biak egiteko aukera ematen didalako. Antzerki tailerraren arduraduna naiz. Zaletasuna dago eta haurrek asko estimatzen dute. Haurrengan zaletasuna pizteko aurretik nik nire lanean sinistu behar dut gero eurek sines dezaten. Komunikatzen jakin behar da, antzerkiaren garrantziaz ohar daitezen. Guzti hau modu ludiko batean egin behar da. Beraz, irakaslea eta aktorea sentitzen naiz.

- Aktorea jaio ala ikasiz egiten da?

- Nere kasuan aitaren familiakoak herri mailako antzerkiak egiten zituzten. Antzerkia txikitatik bizi izan dudana zerbait da, nere laguntzat antzeztan nuen, jolas bat moduan. Ikastolan betidanik egin dut. Prestakuntza izateko ikastaroak ere egin izan ditut. Dena dela komunikatzaile ona izatea da garrantzitsuena hortik aurrera batzuk berezkoa dute eta beste batzuk ikasi egiten dute.

- Noiz sortu zen Taupada?

- Elgoibarren eliza inguruan mugitzen zen antzerki talde bat zegoen. Halere, ez zuen aurrera



"Haurrengan zaletasuna pizteko nik sinistu behar dut lehenik nire lanean, gero umeek sines dezaten"

egin oso jende ezberdina ginen eta. Banatu eta gero, batzuren ikasketak zirela eta ezin ginen denok elkar-tu eta Jose Mari Larrañaga eta biok geratu ginen, gaur arte. Taupada orain 15 urte sortu zen eta etenak izan diren arren haserako ilusioarekin jarraitzen dugu.

- Nori zuzendutako lanak egiten dituzue?

- Denei zuzenduak daude. Marrazki bizidunak helduek ere ikusten dituzte nahiz eta gaztetxoentzat izan. Unibertsitateko udako ikastaroetan izan ginen eta publikoa heldua izanik oso harrera ona izan

genuen. Egia da haurrengana hobeto iristen garela eta hori mentendu nahi dugu, haurrentzako antzerkia beharrezkoa baita.

- Zein da zuen helburua?

- Antzerkiaren bidez euskara leku guztietara eramatea. Orain arte egin ditugun lan guztiak euskaraz izan dira. Euskaraz egoera guztiak aurkeztea posible dela erakusten saiatzen gara, hizkuntza aberatsa eta baliabide ugari dituen delako. Ahalgin honetan administrazioak gutxi laguntzen du ez baititu horrelako taldeak bultzatzen. Guk argi

daukagu zer nahi dugun eta aurrera jotzen dugu traba guztiei aurre eginez.

- Dirulaguntzarik?

- Udaletxeak lokala eta tailerrak martxan jartzeko dirulaguntza minimo bat eman zigun baina ez da nahikoa. Emanaldi bakoitzetik ateratzen duguna beste muntaia bat prestatzeko erabiltzen dugu. Lana ikusiz ez dirudi kostu gehiegirik duenik baina soinu originalak, dekorazioak, profesionalen lanak eta abarrek diru mordo bat suposatzen dute. Sarritan gure poltsikotik ordaindu behar izan dugu.

-Nola ikusten duzu etorkizuna?

- Oso ondo, ilusioz beterik gaude. Azken lana urrian estreinatu genduen Elgoibarren eta oso harrera ona izan zuen. Orain Gasteizen aurkeztuko dugu eta burubelarri gabiltza lanean. Gainera ideia asko ditugu eta horrek bizirik gaudela demostratzen digu. Gure kabuz lan egiteak eta aktuatzek esperientzia eman digu eta bost axola zaigu besteek gure lana nola kotsideratzen duten. Guk gustatzen zaiguna egiten jarraituko dugu.

MAITE IRIONDO




# *Txiki* BARREN

O.H.O.KO IKASLEEKIN EGINDAKO 12. GEHIGARRIA



**P**ilar Ikastetxeko gimnasioan izan gara aste honetan. Ingelesa, matematikak, geografia eta historia askorentzat aspergarriak badira ere, kirol kontuetan gehienak gustura ibiltzen direla esan daiteke. Baloia hartu, espalderatan zintzilikatu, potrora igo eta koltxoneta gainera botaz, pare bat ordu bai eta gehiago ere emango lituzkete gazte gehienek. Eguzkia bete betean sartzen zen leihotik eta 8. mailako ikasleek irrifartsu jaso zuten BARRENEko kamararen begirada.

## TXIKI-TXISTE MISTEAK



## Txertoen inguruko kontuak

**E**uskal Autonomi Elkarteko txerto kalendarioak gomendatzen duenaren arabera, haurrak hilabete bat duenetik eta 13 urte bete arte, 14 txerto jaso beharko lituzke. Txertaketa doaneko zerbitzua da eta Gipuzkoan 53.375 txerto jartzen dira urtean. Kalendario edo egutegia, zonalde bakoitzean ematen diren gaisotasunen arabera egiten da. Euskal Herrian ematea aholkatzen den lehen txertoa BCG izenekoa da, tuberkulosiaren aurkako, eta haurrak hilabete duenean jartzen da. Bi, lau, sei eta hemezortzi hilabetekin bakteriana hirukoitza deritzan txertoa jartzen da. Lau fase-tan banatua, txerto bakarra jartzen da bakoitzean eta kasu honetan differia, tetano eta toserinaren aurrean ematen du babes. Azken txerto honekin batera poliomielitisen kontrako medizina bat

ematen da edateko. Elgorri, rubeola eta parotidisaren kontra beste hiru jartzen dira, hamabi hilabetekin lehena, hamabostekin bigarrena eta 11 urtekin azkena. Sei urtekin differia eta tetanoen kontrako txertoa jartzen da bigarren aldiz, honela haurraren gorputzak behar duen babesa izan dezan. Txerto hauek eskolan bertan jartzen dira gehienetan. Iaz hasita, gaur egun zazpigarren mailako haurrei hepatitis Bren kontrako

txertoa ere jartzen zaie. 93-94 ikasturtean 9.063 hurrek jaso zuten aipatu txertoa Gipuzkoan. Zenbait autonomi elkartetan jaio berriei ematen zaie Hepatitis B-ren aurkako txertoa. Txertoen kalendarioa zer-bait atzeratzeagatik ez da ezer gertatzen, ez du eragina galzen. Txertoak ez dira jarri behar haurrak sukarra duenean.



## Ze iritzi daukazu *etxeke lanak aitak ere egitea*...ri buruz?



"Oro garrantzitsua da eta denek hartu behar dute parte. Nik orain asko maite dut eta zoriontua naiz."

LEIRE APELLANIZ. 7 urte



"Desatre bat. Bakarrik tortila eta patata frijituak jango genituzke."

SORAYA LOPEZ. 9 urte.



"Ongi iruditzen zait aitek jakin dezaten nola nekatzan diren amak, agurak daitezen eta bitartean amak dibertitu daitezen."

GANIX OSTOLAZA. 12 urte



**EGŌ CV 6Wlgt tg**  
**8 wtvg**

1. Mike Olfield-ena.
2. Ez, nahixao dot futbolian jolastia. Ez jataz gustatzen nesken jolasak.
3. Lehenengo galtzetinak, gero barruko kamisetia, prakak eta azkena jertsia.
4. Txalupan ez nitzan ibiliko.
5. Ez dakit, gustauko jatan baina ez dot asko pentsatu.
6. Oin batere ez baina txikitan txupetia.
7. 8etan esnatu, txandala jantzi eta marrazki bizidunak ikusi. Batzuetan Eibarrera juten gera, amamana.
8. Ez, pelikula luzeetan aspertu itxen naiz.

## Galde debalde

1. Noren sinadura izan nahi zenuke?
2. Neska/Mutila izan nahi al zenuke?
3. Nondik hasten zara jaxten?
4. Sekula egingo ez zenukeena?
5. Ezkonduko al zara?
6. Biberioia ala txupetia?
7. Zer egiten duzu igandetan?
8. Ikusi al duzu "El Rey León"?



**Jacopo Arco Ipq**  
**14 wtvg**

1. Brad Pitt-ena. Guapoa eta majoa da, bere elkarriketak irakurtzen ditut Super Pop-en.
2. Ez, bentaja gutxi dake, fuertiak diala eta lan itxeko erreztasun gehixo dakela.
3. Hasketatik gora.
4. Rebista batean ez nitzan biluzik urtengo mila miloi pagatuta ere.
5. Ez dot uste, nahixao dot elkarrekin bizitzia.
6. Txupetia, ez zan sekula amaitzen eta gainera azukria ipintzen nion puntan.
7. Goizian lo eta arratsaldian zinera edo kalera lagunekin baina aspertu itxen naiz, guretzat diskotekak egon behar zian. Guassa haundixentzat da.
8. Bai, asko gustatu zitzaidan.

## Zer da... *debekua* ?

**ASIED ELUSTONDO, 10 wtvg**



"Norbaiti zerbait egiten ez uztea. Adibidez: erregeak morroiari: "zuk zaldun hori ezin duzu hil".

**LOINAZ DOLO, 11 wtvg**



"Ez egiteko agindu digutena. Adibidez: atzo kalera irtetea debekatu zuten".

**IVAN MODALES, 8 wtvg**



"Jendea kotxean doan bitartean gauzak ondo egiteko jartzen dena".

**SADA VAZQUEZ, 8 wtvg**



"Seinale bat jartzen denean errespetatzeko eta geldi egoteko".

**MIREIA GONZALEZ, 12 wtvg**



"Aitek egiten duten gauza txar bat da. Ia beti ez didate lagatzen gauetan irteten jai dagoenean".

**GORKA INTXAUSTI, 11 wtvg**



"Gobernatzen edo mandatzen dutenek bakarrik ipini ditzakete debekuak gure mundu guztian".

# Denborapasak: ezetz asmatu!

## 1. Zer galdetu diegu beraiek erantzun hau emateko?



**AINHOA  
MENDIBIL**  
6 urte

"Gaur goizian zezen haundi bat pasau da eta jan egin nau. Bel-beltza zan, neri ez dia bildurra eman eta horregatik hurreratu naiz.

Derrepentian ahua

zabaldu eta jan egin nau. Igerri in dot zela tragatzen nindun. Bere barruko triapak zatarrak dia, gorrixak. Igual egun batian kaka egin eta kanpora



**DAVID  
RODRIGUEZ**  
12 urte

"Ozono kapa apurtuta dagoenez kupula bat jarri behar dute Elgoibar estaltzeko.

Amerikatik ekarriko duten kapa garden bat izango da,

argixa sartuko da baina eguzkixan izpizak ez eta eurixa itxen badau ere ez dogu igarriko. Udan bakarrik kenduko da".

Erantzuna: Kontutuko al diguzu gezur handi bat?

**OSPAKIZUNAK**  
**BARREN**  
**100.**  
*zenbakia*

## *7xiki* **BARREN FESTA**

### **OHOKO HAURRENTZAT**

1., 2., 3. eta 4. mailakoentzat

### **PILAZOAK**

**Poti, Kiki eta Kiriki**

(Elena Irureta, Ane Gabarain eta Aizpea Goenaga)

*Arratsaldeko 5etan  
Kultur Etxean*

5., 6., 7. eta 8. mailakoentzat

### **KARAOKE LEHIAKETA EUSKARAZ**

Bakarka edo taldeka (3 altuenez)  
Sariak: PITXINTXUK emandako ZINTAK

*Arratsaldeko 6,30etan Kultur Etxean*

**Izena emateko:** BARRENen edo Elgoibarko Izarran eta egunean bertan 6etatik 6,30etara.

**ANTOLATZAILEAK:** BARREN astekaria eta ELGOIBARKO IZARRA K.E.

**LAGUNTZAILEAK:** Elgoibarko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia





## Isabel Barrutia

### Urzelai argidendakoa



● **Zenbat denbora lan honetan?**

▶ Argi dendarekin ia hamabi urte, elektrizista moduan hogei urte inguru.

● **Nolatan lanbide hau?**

▶ Elektrizista izanik, Elgoibarren argidenda bat behar zela konturatu ginen.

● **Zenbat ordu lanean egunean?**

▶ Asko, dendan 8-10 inguru.

● **Argirik onena?** ▶ Dударик gabe, eguzkiarena.

● **Zer utziko zenuke betirako ilunpean?** ▶ Inbidixia.

● **Beldurra ematen al dizu iluntasunak?** ▶ Ez, bat ere ez.

● **Ze argi klase jarriko zenuke afari erromantiko batean?**

▶ Aplike indirekto batzuk bazterretan, ez oso potente eta, noski, bi kandela mahai gainean.

● **Zerk argitzen du zure bizitza?** ▶ Nire familiaren maitasunak.

● **Zer egiten duzu errezago, barre ala negar?** ▶ Barre.

● **Egin duzun bidaiarik luzeena?**

▶ Luzeena Parisera, baina politena iparraldera.

● **Ura ala ardoa?** ▶ Ura.

● **Egunkaririk irakurtzen al duzu?** ▶ Bai, El Diario eta Egin.

● **Urteko sasoirik onena?**

▶ Niretzat udaberria baina lanerako danak antzera.

● **Trikitixa dantzatzen ba al dakizu?**

▶ Ez, baina alabak dantzan ikusteak inbidia ematen dit.

● **Zer eskatuko zenioke alkate berriari?**

▶ Gutxienez, herriarengatik eta herriarentzat lan egin dezala.

● **Igartzen al duzu krisia?**

▶ Bai, jendeak lehen baino gehiago begiratzen dio prezioari.

● **Zein telebista kate ikusten duzu?**

▶ Gehien ETB2 eta, noski, "A ze para" eta "Goenkale" derrigorrez ikusi behar dira nere etxean.

● **Garizuma betetzeko asmorik?** ▶ Ez.

● **Aste honetan emakumearen eguna izan da, ospatzen al duzu?**

▶ Ez, mugimenduaren aldekoa naiz baina ez dut ospatzen.

JOSEBA GOROSABEL

## ROLDANEN BERRI

Zortziko handian

Nonbait Madrilen tontoak dira ez dakite Roldan zein den hamaikagarren zirria da hau hamar ziriren ondoren Roldan ez dago atxilotua inguruotan da hain zuzen inork aurkitu ez lezake ta lasai bizi da Arralden

Goenkaletik barrenkalera han izango da Luis Roldan puru haundi bat ezpainetan ta emagalduek aukeran orgia latzak antolatuz lehen ikasitako eran Bellochen berri ez daukat baina hau biziko da patxaran



ASIER ETXANIZ



Otsailaren 27an hil zen **JON MUGURUZA URIARTE**ren ahaideok, **ESKERRAK** eman nahi dizkizuegu haren hiletara joan zinetenoi, samin agurrak bidali eta une latz honetan lagun izan zaituztegun guztioi.

## Sute txiki bat itzali zuten Udaltzainek Santa Anan

Joan den igandean sute txiki bat izan zen Santa Ana 16 zenbakian. Dirudienez gizon bat erretzen zegoen ohe gainean etzanda eta lo hartu zuen. Zigarroaren eraginez almohadak su hartu omen zuen. Gizona esnatu eta konturatu zenean, itzali egin zuen arren, berriz ere lokartu bezain pronto, sua berpiztu egin zen, itxuraz ez baitzuen ondo amatatu. Udaltzaingoa berehala iritsi zen etxebizitzara eta, zorionez, sute txikia ez zen gehiagora joan.

## Egonaldiak familia euskaldunetan

Euskalduntze prozesuan murgilduta daudenek euskaraz bizitzeko euskal giro egokia izan dezaten, "Egonaldiak Familia Euskaldunetan" plangintza antolatuta du Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak. Interesatuta daudenek inskripzio fitxa aurkeztu behar dute Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailean martxoaren 22a baino lehen. Hileko eta ikasle bakoitzeko 60.000 pta jasoko ditu familia bakoitzak. Informazio gehiago Kultur Zerbitzuan.

## Uraren kontadore digitalak jarriko dituzte



■ ■ Ezkerrean kontadore digitala, eskuman zaharra.


**O**rain arte ezagutu izan ditugun ur kontadoreak beste modernoagoa batzuringatik ordezkaturiko dituzte. 500 kontadore berri jarriko dituzte, datuak pantaila digital batean ikusiko direlarik.

Sistema honen bidez uraren kontsumoari buruzko datuak hartzerakoan eman daitezkeen akatsak ekiditea posible izango

da, metodo askoz zorrotzagoa baita. Momentuz Udaletxeko langileek 200 kontadore ipini dituzte eta asmoa hiru hilabetean behin 125 kontadore aldatzea da. Oraindik ez dago zehaztua zein enpresa egingo den obren kargu. Mementuz "Domingo Aizpiri" enpresak 3.500.000 ptako aurrekontua aurkeztu du baina beste batzuei ere eskatuko zaie.

# EGIN EZAZU ORAIN!!

DISEINATU ZURE SUKALDEA ETA GALDETU ITZAZU PREZIOAK



**DIFERENTZIA**

**BAKARRA**

**PREZIOA DA**

■ ■ Zure sukaldearen neurriak hartzeko behar duzun dokumentazio guztia eskaiguzu ■ ■



San Frantzisko, 53 • Elgoibar • ☎ 74 08 47


## San Bartolome eliza (III)

- Elizako gurutzaduran lau matxoi haundik eraztunaren gainean zuzenean eraikitzen den kupula erdi esferikoa eusten dute, matxoi kupularen arteko iraganbidea petxinen bidez egiten delarik.
- Petxinetan dekorazio "rokoko"-a ageri da (festoia, fruituak eta arroketan kateaturiko zintak erabiliz zentzu plastiko handia lortzen da). Marko obalatuetan Ignacio Arana pintoreak margotutako lau eliz-doktoreen irudiak agertzen dira. Ignacio berak San Pedro ermitako Santiago margotu zuen 1716 urtean, lan horren truke 37 erreale eta 17 marabedi kobratuz.
- Presbiterio angeluzuzena nabarekiko altxatua dago eta alboetan sakristiak daude, ezker aldekoa kapera bilakatua delarik.
- Aldare nagusia Haanek diseinaturikoa eta Justinianik eta Ugartemendiak landutako erretaulaz

edertuko dute. Alboetako eta sakristiako erretaulak, berriz, Miguel Antonio Sarasola mutrikuarrak egin zituen.

- Elizaren oinean dorrea nabari da. Honek eliz atari aurreko zatiekin batera fatxada nagusia osatzen du eta Elgoibarko plaza dotorearen albo bat eratzen. Dorre ataria erdiko ardatzean kokatzen da.
- Elizari burualdetik kristau biderako gelak eta apezetxea erantsi zitzaizkion.

PELLO ARRIETA



## Juana Ansola Celaya

(1912-1995)



- 1912ko maiatzaren 5ean Elgoibarren jaio zen.
- Txanbolin txistulari ezagunen arreba zen.
- Juan Zubiaurrerekin ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituen.
- "El Telar" izenez ezaguna den lantokian urte askoan aritu izan zen.
- Senarrarena zen "Tornilleria viuda de Manuel Zubiaurre" enpresan administrazioa eramaten zuen.
- Sukaldari oso ona zen, elkarte askotik jasotzen zuen bakailoa egiteko enkargua.
- Gantxiloa egitea asko gustatzen zitzaion eta artelan asko egin izan zituen etxerako.
- Solfeorik ez zuen sekula ikasi baina edozein abestiren notak ateratzeko gai zen. Elgoibarren egin zen "El caserio" zarzuelan parte hartu zuen Juanak. Hileta elizkizunean apaizak esan bezala, "mezatan jendea isildu egiten zen bere ahots ederra entzun ahal izateko".
- Irakurtzea eta idaztea ere asko gustatzen zitzaizkion.
- Emakume oso ezaguna izan zen herrian, maitatua eta umore onekoa.
- 1995eko otsailaren 25ean hil zen.

**GARAY**  
  
**HARATEGIA**  
 San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92

**BOUTIQUE DEL PAN**  
 Enpanada Baserriko ogia  
 B. Ecenarro, 1 ☎ 74 33 92

**ARMUETA**  
 Baserriko haragietan berezia  
  
**Harategi Urdaitegia**  
 San Bartolome, 16. ☎ 74 06 40



## EKIPOKERIAK

- **IZENA:** Kosakos.
- **ZERGATIK IZEN HORI?** Zertarako beste bat?
- **SORRERA:** Orain dela hamar urte, 1985.ean.
- **AURTENGO ASMOAK:** Ahal bada txapelketa eskuratzea.
- **B/B ADINA:** 26 urte (+ -).
- **LORPENAK:** Txapelketa behin irabazi, eta beste bitan bigarren eta hirugarren postua lortu genuen.

**JOKALARIAK:** Zutik, ezkerretik eskumara: Alberto Sabando, Felipe Castrillejo, Asier Zengotita eta Jose Ramon Zabala. Makurtuta: Xabier Bastida, Jesus Vicente de la Mata eta Aitor Gabilondo.

## •••••••••• DATORREN IHARDUNALDIA

**10,00:** Replastisa - Haritza      Rua - D. Kalimotxo  
**11,00:** G. Garcia - Aldavas    S. Roketarra - King-Kong  
**12,00:** Ametsa - D.T. Veterans    Oraiko - Kosakos

## A Taldea

	PUNTUAK	GOLAK
1. G. GARCIA	17	48
2. KING-KONG	17	25
3. D.T. VETERANS	16	24
4. KOSAKOS	14	1
5. S. ROKETARRA	11	6
6. LA MAXIA	11	-4
7. RUA	9	-3
8. D. KALIMOTXO	9	-16
9. AMETSA	8	4
10. ORAIKO CAFE	8	-14
11. HARITZA	6	-3
12. ALDAVAS	6	-23
13. REPLASTISA	0	-45

## GOLAK

### GOLEGILERIK ONENA

- J. Romero (G. Garcia) 20 gol
- Mancebo (Mimox) 19 gol
- Gonzalez (Karkis) 15 gol
- C. Conde (Pedruscos) 14 gol
- D. Conde (Pedruscos) 14 gol

### GOL GUTXIEN JASO DUEN ATEZAINA

- Iglesias (G. Garcia) 10 gol
- Agirrezabal (D.T. Veterans) 12 gol
- Díaz (King - Kong) 15 gol
- Muñoz (Karkis) 15 gol
- Revert (Pedruscos) 16 gol

## B Taldea

	PUNTUAK	GOLAK
1. PEDRUSCOS	20	35
2. MIMOX	18	45
3. KARKIS	18	33
4. H. VERBOTEN	15	16
5. UNIV. CHILE	14	10
6. GRUAS PANA	11	11
7. LUCKY LUKE	11	5
8. SPORTING	11	-3
9. TROPIKO	9	0
10. REBEL URBI	6	-27
11. BERROGEI DURO	5	-36
12. FOTERO	4	-29
13. RESTO MUNDO	2	-60

## AGENDA

### FUTBOLA Mintxetan Larunbata 11

- 12,30: Elgoibar - Sto. Tomas (Infantilak)
- 16,00: Elgoibar - Alde Zaharra (Neskak)

### Igandea 12

- 10,00: Urko - Durango (Jubenilak)
- 12,00: Urki - Segura (2. errejionala)
- 16,00: Elgoibar - Martutene (Kadeteak)

### ESKUBALOIA Kiroldegian Larunbata 11

- 16,00: Elgoibar - Hernani (Kadete neskek)
- 17,30: Elgoibar - Mundaiz (Kadete mutilak)

### PILOTA Ikastolako frontoian

Ostirala 10, gaueko 10etan

### DEBA ARROKO PILOTA TXAPELKETA

- **Infantilak:** Martin - Zabaleta (Bergara), Karmel-Garate (Lagunak)
- **Jubenilak:** Osa - Gutierrez (Bergara), Balzola - Lazarobaster (Lagunak)
- **Seniorrak:** Murua - Oruesagasti (Bergara), Ansola - Alzibar (Lagunak)

## EMAITZAK

### FUTBOLA

- Elgoibar 1 - Martutene 0 (Jubenilak)
- Elgoibar 9 - Idiazabal 1 (Kadeteak)
- Elgoibar 4 - Aloñamendi 1 (2. errejionala)
- Haundi 3 - Balmaseda 2
- Bergara 0 - Elgoibar 5 (Neskak)
- Bergara 2 - Elgoibar 0 (Infantilak)

### ESKUBALOIA

- Usurbil 7 - Pagoaga Elgoibar 16 (Kadete neskek)
- Elgoibar 21 - Zarautz 15 (Kadete mutilak)
- Tolosa 35 - Elgoibar 37 (Jubenil mutilak)
- Elgoibar 16 - Bermeo 12 (Senior neskek)
- Txanakakua Elgoibar 34 - Bidasotarra 30 (Senior mutilak)

### FUTBITOA

- Tropiko 7 - Rebel Urbi 0      Gruas Pana 11 - R. Mundo 2
- Lucky Luke 1 - H. Verboten 1      Karkis 9 - Fotero 2
- Pedruscos 5 - Univ. Chile 1      Sporting 6 - Mimox 0

## Markeliñe Elgoibarren eta Antzerki Jardunaldiak Eibarren

Joan den ostiralean, martxoak 3, eman zitzaion hasera Eibarko XVIII Antzerki Jardunaldiei nazio mailako Antzerki Sariaren jabea den Jose Luis Alonso De Santosen hitzaldiarekin. Antzerki zaletu guztiek datorren apirilaren 5era arte badute gozatzeko aukerarik.

**A**lonso de Santos antzerkilaria, zuzendari eta idazlea ere bada. Berak idatzitako antzezlanik aipagarrienetarikorik batzuk "Bajarse al Moro" eta "La estanquera de Vallecas" dira. Ekitaldi berean antzez artikulu eta gidoientzako "Narruzko Zezen" 10. edizioko sari banaketa egin zen. Guztira 18 antzerki izango dira ikusgai. Besteak beste, Nuria Espert-en "El cerco de Leningrado" eta Karraka taldearen "Pecata minuta". Antzezpene guztiak Unibertsitate laboralean izango dira. Nuria Espert ikusi nahi duenak 900 pta ordaindu beharko ditu. Gainontzeko saio guztiek 600 pezetako kostua dute. Kon-



■ ■ Markeliñe taldeak "Entretejas" lana antzeztuko du gaur Herriko Antzokian.

tuatu izan behar da gazte txartelak, ikasle txartelak, langabetu eta jubilatuek beherapenak izango dituztela. Sarrerak alde aurretik jaso daitezke, horretarako Eibarko Udaletxeko Kultura Sailera jo behar delarik.

### Markeliñe-ren "Entretejas" gaur

Gaur, ostirala, Markeliñe taldearen "Entretejas" antzezlana mutua ikusteko aukera izango da Herriko Antzokian. "Entretejas" lanak teila-tu gainean eta gauez ematen diren istorio batzuk garatzen ditu. Iñaki Egiluz taldekideak adierazi zuenez,

"gaueko mundu poetikoa, magikoa, fantasia mundua isladatu nahi izan dugu". Teilatua bisitari arraroen topalekua da, hala nola, suizidak, lapurrak, zerutik jeitsi diren aingeruak... Lan honen bidez, "gizakiaren poesia egiteko ahalmena, irudimena eta fantasia aldarrikatu nahi ditugu". Fran Lasuenek idatzitako musika da antzerkiaren elementu garrantzitsuenetarikoa, "gurea hitzik gabeko antzerki bisuala da, musikaz, kolorez, gesto bidez komunikatu eta entretenitu nahi dugu ikusentzulea".

Bidaietako nahiz etxeko asistentzietarako:

**GRUAS PANA**

Deba kalea, 13 • 20.870 ELGOIBAR  
 ☎ 74 38 38 - Fax 74 43 32  
 Tel. mobila: 908 77 06 23

- Eibar, Legazpi, Arrasate, Errenteri eta Zornotzan delegazioak ditugu.
- Asistentzi konpainia haundienekin lan egiten dugu.


**Logopedia Zentroa**

Isabel Gil Arrocha  
 Josune Sainz Larrañaga

- Hizkuntz arazoak
- Hizketa arazoak
- Ahots arazoak
- Irakurtzeko eta idazteko arazoak

Bidebarrieta, 27-B  
 Tel. 10 84 71 EIBAR

# 1994ko KIRO



## JUDO

### GORKA GARATE (14 urte)

- Gipuzkoako Diputazioak atleta promesa sub-17 izendatu zuen.
- Euskadi eta Gipuzkoako sub-15 selekzioetako partaidea.
- Nazioarteko txapeldun Mont de Marsanten (Frantzia).
- 5. Espainiako sub-15 Txapelketan.
- Euskadiko txapeldun eskolarra (sub-15).



## PILOTA

### ARKAITZ BALZOLA (16 urte)


- Inter-distritoetan Gipuzkoako txapeldun.
- "Cafe Baque" torneoan (buruz-buru) txapeldun orde.
- Bai "Liga Vasca"-n eta baita "Interpueblos" txapelketetan oso emaitza onak lortu ditu. Bere mailan Gipuzkoako onenatarikoa da.



## TXIRRINDULARITZA

### JOSU UNZUETA (16 urte)

- Labegarietako Saria (Bergara): 8.a.
- Talleres Meca Saria (Aretxabaleta): 5.a.
- Otxoa Memoriala (Eibar): 4.a.
- Agustin Urkola Memoriala (Umieta): 4.a.
- Irurako Saria (Irura): 4.a.
- Atraves de Triana Saria (Oñati): 6.a.
- San Isidro Saria (Usurbil): 2.a.



## TRIATHLOIA

### INAKI ANDONEGI (25 urte)

- Bi Ironmam egin ditu; Anberesen (Holanda) eta Nizan (bere kategorian munduko 28.a gelditu zen).



## ESKUBALOIA

### LETICIA ASTRAY (15 urte)

- Bere taldea Gipuzkoako eta Euskadiko txapeldun geratu zen Infantil mailan. Espainiako Txapelketan 5. geratu ziren.
- Euskadiko selekzioko partaide izan zen eta Espainia mailako konzentrazio batean parte hartu zuen Leridan.



## ATLETISMOA

### CARMEN PEREA (20 urte)

- Pista estalia: 800 metrotako Gipuzkoako txapeldun absolutua eta Euskadiko txapeldun juniorra. Laugarren Espainiako Txapelketan (800m).
- Aire libreko pista: 800 metrotako Gipuzkoako txapeldun juniorra. 1.500 metrotako Euskadiko azpitxapeldun juniorra. Bostgarren 800 metrotako Espainiako Txapelketa Juniorrean.



## EHIZA

### PATXI ARRIOLA (30 urte)

- Gipuzkoako Oilagorren txapelduna.
- Euskadiko Oilagorren txapelduna.



## FUTBOLA

### JOSEBA ETXEBERRIA (17 urte)

- Euskadiko eta Gipuzkoako selekzioekin jokatu ditu zenbait partidu.
- Espainiako sub 20 selekzioan dago.
- Sanseko jokalaria da .



## ARETO FUTBOLA

### JOSE LUIS GONZALEZ (23 urte)

- Elgoibar Areto Futbol Taldean jokatzen du 1. mailan.
- Gipuzkoako sub 23 selekzioan jokatu zuen 94an. Euskadiko txapelketan ere jokatu zuen.



## IGERIKETA

### AMAIA REVERT (15 urte)

- Aurreneko postuetan geratu da Oñate, Eibar eta Ondarrun izandako lasterketan, bere marka pertsonala gaindituz.

# OLARI ONENA

Babeslea



## HERRI KIROLAK

**BOLO JOKUA: JAVIER OSORO (37 urte)**

- Gipuzkoako Txapelketan 2.a bakarka eta taldeka.
- Euskadiko Txapelketan 2.a. bakarka eta taldeka. (3 txirlo eta bolo alaves).
- Gipuzkoako bikotekako txapelduna Jose Irustarekin batera.
- Elgoibarko txapelduna banaka.



## KARATEA

**MIKEL ARMENDIA (11 urte)**

- Gerriko berde-urdina.
- Azpeiti, Markina, Elgoibar eta Lekeition izandako txapelketetan nabarmen aritu da lehen postuak eskuratuz.



## SASKIBALOIA

**RICHARD ARANZABAL (25 urte)**

- Zaragozako "Picos Coronas" 2. mailako ekipoa hegala pilot postuan jokatzen du.
- 94ko Gabon Kirol Txapelketako Kirolari onena izendatu zuten.



## MENDIA

**INAKI ETXABE (25 urte)**

- 2-3 hilabete egin zituen Andean.
- 8 mendi igotzeko saiakera egin ondoren 6 hauetara igotzea lortu zuen: Huascaran (6768), Alpamayo (5.947), Quitarran (6036), Ranrapalca (6162), Ururus (5495) eta Uallunarju (5.686).



**BARRENEK** eta **UDAL KIROL ZERBITZUAK** **1994. URTEKO KIROLARI ONENA** aukeratu nahi dute. Horretarako Elgoibarko Kirol elkarteei euren iritzia eskatu diegu eta goian dauzkazuen 14 kirolariak aukeratu dituzte.

Erabakia epaimahai batek hartuko du eta martxoaren 14ean ospatuko den KirolBARREN 94 ekitaldian emango da ezagutzera. Epaimahaia Alberto Agirreazaldegia (BARRENEko zuzendaria), Ramon Mujika (Udal Kirol teknikaria), Aitor Zabala (DVko Kazetaria) eta Jose Gurrutxagak osatuko dute.

## • KIROLBARREN KINIELA •

**ARTEGI ARTEGI**

IRUDIA ETA SOUNUA

ELEKTRAGAILUAK

Asmatzen duzuenon artean

**VHS BIDEU HAU** zozketatuko dugu.



Zein izan zen kirolBARREN 93ko irabazlea?

.....

Zein izango da KirolBARREN 94ko irabazlea?

.....

Izen-abizenak.....

.....

Tel.:.....

Fitxa hau behar bezala bete eta ekarri BARRENERA martxoaren 13a baino lehen. Bi erantzunak asmatzen dituzuenon artean ARTEGI elektragailu denda emandako SONY VHS bideo hau zozketatuko dugu. Zozketa KirolBARREN ekitaldian egingo da, martxoaren 14ean arratsaldeko 7etan Herriko Antzokian

Garai batean gazte guztiek, edo gehienek behintzat, soldadutza egiten zuten. Zortea zutenak libratu egiten ziren. Objettore izatea ere posible zen eta, armak hartu beharrean, zerbitzu bat betetzea ezarri zen.

Gaur egun gero eta gazte gehiago intsumitu egiten da. Baina, ba al dakigu bakoitzaren jarrera zein den? Hiru aukera hauetako bana hautatu duten gazteekin izan gara beraien ahotik euren arrazoiak jaso asmoz.

## Soldadutza, objezioa *ala* intsumisioa?

### Igor Lizarralde 22 urte

- **Noiz amaitu duzu soldadutza?** - Orain dela pare bat aste.

- **Non egin duzu?** - Gasteizen.

- **Eta, nolako esperientzia izan da?** - Ona ez, nahiz eta Gasteizen tokatuzian asteburu guztietan etxera etorri.

- **Nolakoa zen egun bat?** - Goizeko 7etan jaiki, gosalduta eta rebestia pasatzen ziguten. Ni artillerian egon naiz eta eguerdiko 1ak arte kañoiekin ibiltzen ginan, praktikak egiten. Gero bazkalduta eta 3'30ak arte libre zakagun. 5'30ak arte armak edo komunak garbitzen ibiltzen ginan eta handik aurrera libre.

- **Zergatik egin zenuen?** - Lanean nengoen praktikak egiten eta esan zidatenez, soldadutza eginda izanez gero, kontratua sinatzeko aukera izan nezakeen. Saiatu nintzen libratzen baina ez nuen lortu. Beste ezer ez neukanez, mementua aprobetxatu eta pisu hori gainetik kentzea erabaki nuen.

- **Atzera eginez gero, berriz egingo al zenuke?** - Ez. Objettore egingo nintzateke.

- **Intsumisioari buruz, zer?** - Ondo iruditzen zait baina ni ez naiz egoera horretan ikusten.

- **Kontraturik begi bistan?** - Zain nago.



### Aitor Intxausti 24 urte

- **Zer da objettore izatea?** - Zerbitzu militarren aurkako jarrera bat.

- **Noiztik zara objettore?** - 19 urte nituenetik.

- **Eta zergatik?** - Lan kontuagatik. Intsumiso egin izan banintz lan egiteko pasaportea kentzeko arriskua neukan, beraz, nahiago izan dut objettore egitea.

- **Ordezko zerbitzua egin al duzu?**

- Gurutze Gorrian egiten ari naiz.

- **Zein iraupen du?**

- 13 hilabete gutzira, 12 zerbitzua ematen eta beste bat oporretan.

- **Eta ordutegia?** - Batzuek astean zehar betetzen dute eta beste batzuek astebukaeratan, ostiralean hasi eta igandera bitartean hilean bizpahiru astebukaera.

- **Zein iritzi duzu soldadutzari buruz?** - Denbora galtzea iruditzen zait.

- **Eta ordezko zerbitzua betetzea ez?** - Ez, lehen ere izan nintzen DYAn eta horrelako zerbitzua eskaintzea, jendeari lagunduz, ez zait inondik inora denbora galtze bat iruditzen.

- **Atzera egiterik bazenu, egingo al zinake objettore berriz ere?** - Bai, dudarik gabe.



### Xabier Zelaia 21 urte



- **Noiztik intsumitu?**

- 1992tik.

- **Zer da intsumitu izatea?** - Desobediencia kasu bat da. Norberak bere kontzientziaren arabera erabili

dezakeena gauza batzuei ezetz esateko edo beste batzuei baietz.

- **Beti izan al duzu garbi?** - Bai, beti izan dut ejerzitoaren aurkako postura garbia ze gizarteak balore injusto ugari ematen ditu: inperialismoa, matxismoa, hirugarrem nunduarekin gertatzen ari dena... Ez naiz intsumitu egin soldadutzak bildurra ematen didalako.

- **Epaiketarik izan al duzu?** - Bai. Bi urte, lau hilabete eta egun bateko gartzela zigorra ezarri didate eta bi urte lau hilabete eta egun bateko inabilitazio publikoa.

- **Gartzela nola ikusten duzu?**

- 60 daude barruan eta intsumituentzat beste fronte bat da borroka egiteko. Joan behar bada, joango gara.

- **Zenbat intsumitu zaudete Elgoibarren?** - Izena emanda 35 inguru.

- **Zein iritzi duzu objetoreei buruz?** - Soldadutza ez egiteko erarik komoduena hartu dabe. Lanpostuak kentzen daude profesionalak ez daukatelako aukerarik Gurutze Gorrian edo Inerson lanpostu bat izateko. Insolidarioak dira.

- **Eta soldadutza?** - Jarrera inperialista eta faszisten erruduna da eta armak jartzen dituzte balore nagusi bezela.



## Etxebizitzak

PISU BAT alokatzen dut.  
Altzari eta guzti.  
☎ 74 32 45  
Lan orduetan

3 hilabetetarako bi bainu gela  
dituen ETXE BAT alokatuko  
nuke.  
☎ 74 41 32 **Eduerne**

Banketxeko langile batek  
Elgoibarren  
AMUEBLATUTAKO  
ETXEBIZITZA alokatuko  
luke.  
☎ 74 05 62 **Txema**  
9etatik 14etara

APARTAMENDU BAT  
daukat Benidormen  
alokatzeko. Levanteko  
hondartzako lehen ilaran.  
Igerilekua eta aparkalekua.  
☎ 74 16 57

ETXEBIZITZA BAT saltzen  
da. Santa Klara 24, 5-B.  
☎ 74 32 98

LAGUN BAT BEHAR  
DUGU Donostian, Gros  
auzoan, pisu bat osatzeko.  
☎ 29 11 10 **Jontxu**  
Gauz 10etatik aurrera

## Garajeak

GARAJE BAT dut  
alokatzeko pista beltzaren  
azpian, Institutu parean.  
Marraduna.  
☎ 74 39 19

GARAJE BAT saltzen dut  
ANAYAK edifizioan. 15m<sup>2</sup>  
eta bi planta.  
☎ 74 25 01 / 10 82 43

GARAJE itxi bat saltzen dut  
santa Ana 46 zenbakian  
☎ 74 13 67

GARAJE BAT alokatzen dut  
San Roken, 5 zenbakian.  
Marraduna.  
☎ 74 02 61

GARAJE BAT daukat  
alokatzeko San Rokeko pista  
beltzean. Marraduna.  
☎ 74 21 64

Marradun GARAJE BAT  
saltzen dut. Santa Ana 6.  
☎ 74 02 81  
9etatik aurrera

## Bestelakoak

URREZKO KATE BAT  
galdu dut. Inork aurkitu badu,  
mesedez deitu.  
☎ 74 32 48

GITARRAKO KLASEAK  
hartuko nituzke, norbait  
klaseak emateko prest balego.  
☎ 74 09 02

CARITASEk sukalderrako eta  
salarako ARMARIO BAT  
behar du.  
☎ 74 15 09 ☎ 74 12 57

## Lana

ENPRESA ZIENTZIETAN  
LIZENTZIATUAK  
kontabilitate balantzeetarako  
analisi eta auditoriako  
partikularrak ematen ditu.  
Maila guztiak.

ENPRESARIALESETAN  
DIPLOMATUA ofizina  
lanak edo beste edozein lan  
egiteko prest dago.  
☎ 74 39 89 **Mari Karmen**

Neska euskalduna ETXEKO  
LANAK edota UMEAK  
ZAINTZEKO prest dago.  
Goizez.  
☎ 74 09 02 **Kristina**

HAURRAK ZAINDU edota  
ETXEKO LANAK egiteko  
prest nago.  
☎ 74 43 16 **Mari Karmen**  
Goizez

Edozein testu mota  
ORDENAGAILUZ  
PASATZEN DA. Grafikoak  
sartzeko aukera.  
☎ 74 41 77 **Idoia**  
☎ 74 22 77 **Iratxe**

## Salerosketak

SUKALDE BAT saltzen dut.  
Txikia, altzariekin eta egoera  
onean. Prezio egokia.  
☎ 74 33 19  
Ordubatetik 3etara

SALA OSO BAT saltzen dut.  
Armarioa, tresilloa eta bi  
siloi txiki. Egoera onean.  
☎ 74 33 19  
Ordubatetik 3etara

YAMAHA TZR 80 cc BAT  
saltzen dut. Oso ondo dago.  
Prezio interesgarria.  
☎ 74 41 12 **Nekane**

CUERPO MINOLTA 7.000  
BAT saltzen dut. Prezio oso  
interesgarria.  
☎ 74 04 38 / 74 08 00 **Aitor**

2 urtetako SIBERIAN  
HASKY BAT saltzen dut.  
Papelak dauzka eta pedigreea  
ere bai .  
☎ 74 38 41


BMX KLASEKO BI  
BIZIKLETA saltzen ditut.  
Bata Peugeot markakoa, oso  
ondo zainduta, eta bestea  
Huch (USA) markakoa:  
kuadro orijinala, bakarra,  
frenoak, llantak eta  
manillarrak erregalatu.  
☎ 74 34 05

MUSIKA KATE BAT  
saltzen dugu. Philips  
markakoa, erabili gabea eta  
berri-berria. Gauz deitu.  
☎ 74 26 26 / 74 20 31

Randy markako PATIN  
BATZUK (bi errobera  
aurrean eta bi atzean) saltzen  
dira. 37 tailakoak. 4.000 pta.  
☎ 74 17 60

AEG markako erropa  
lehortzeko SEKADORA  
BAT saltzen da. Berria dago.  
☎ 74 34 06

## PREMAZKO TELEFONOAK



### OSASUNA

Anbulategia:  
Larrialdiak.....461111  
Txanda hartzeko.....743354  
Planning .....742950  
Alkoholiko Anonimoak..740385  
D.Y.A (anbulantzia) ..464622  
Gurutze Gorria.....743864  
Mendaroko Ospitala.756264  
Drogomenpekotasun Z.741008  
Odol Emaileak .....743936

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442  
PESA (Eibar).....112131  
Taxi Geltokia.....740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366  
Kirol Zerbitzua .....744415  
Kultura Zerbitzua.....742158  
Mendaroko Udala ...756100  
Ongizate zerbitzua...743736  
Udaletxea .....741050  
Udaltzaingoa .....741394

### BESTELAKOAK

Caritas .....740142  
Elgoibarko Izarra.....741626  
IMI.....741196  
Kontsumo Bulegoa ...743088  
Liburutegia .....743525  
Musika Eskola .....742145  
Mintxeta .....744315  
Parrokia.....740842  
Polikiroldegia .....741361  
Postetxea.....741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296  
Zaharren Biltokia.....740526

### IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79  
I.M.H. ....74 41 32  
Institutua .....74 02 67  
Ikastola .....74 44 41  
L.H.I.....74 44 80  
Pilar Ikastetxea .....74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12  
El Diario Vasco .....74 40 73  
El Mundo .....74 22 67  
El Correo Español...74 10 82  
Egin.....11 84 21  
Deia .....74 11 57  
Zazpiki .....74 34 74

# ASTEAN ZEHAR

## OSTIRALA

**22,00 DIAPOSITIBA EMANALDIA**

Pico Lenin (Inaxio Garmendia)  
✓ Kultur Etxean  
Antolatzailea: Morkaiko M.E.

**22,15 ANTZERKIA**

Markeliñe: "Entretejas"  
✓ Herriko Antzokian (350 pta)

## LARUNBATA

**11,00 ZUHAITZ EGUNA**

✓ Mintxetan

**11,00 TANBORRADAREN BILERA**

✓ Kultur Etxean

**16,00 AUTODETERMINAZIOAREN  
ALDEKO MANIFESTAZIORA  
AUTOBUSA**

✓ Plaza Handian

**19,30-22,15 ZINEA**

"La pasión turca"

## IGANDEA

**7,00 MENDI TRABESIA**

✓ Irteera Plaza Handitik  
Antolatzailea: Morkaiko

**12,30 KONTZERTUA**

Donostiako Ingenieritza Eskola  
✓ Herriko Antokian  
Antolatzailea: Itxaropena Abesbatza

**16,30 ZINEA**

"Stargate"

**19,30-22,15 ZINEA**

"La pasión turca"

## ASTELEHENA

**22,15 ZINEA**

"La pasión turca"

## ASTEARTEA

**22,15 ZINEA**

"Stargate"

## ASTEAZKENA

**09,00-12,00-19,30 IRUDI BIZIAK**

OHoko haurrentzat  
"El jardín secreto"  
✓ Herriko Antzokian

## OSTIRALA

**22,15 ZINEA**

"El pico de las viudas"

### Martxoak 8 Emakume langilearen eguna

*12, igandea*

Emakumeentzat **BAZKARIA**  
bertsolari eta trikitilariekin

*14 Asteartea*

20,00 **HITZALDIA**  
"Emakumea eta HIESA"

• Kultur Etxean

*15 Asteazkena*

15,30 **HITZALDIA**: "Emakumearen  
ardura hezitzaile bezala"

• Kultur Etxean

*16 Osteguna*

15,30 **HITZALDIA**  
"Etxekoandarearen egoera"

• Kultur Etxean

21,00 **EZTABAIDA ZAZPIKIN**  
"Eraso sexualak"

### txandak FARMAZIAK:

EGUNA	EGUNEZ	GAUEZ
11, larunbata:	Etxeberria	Etxeberria
12, igandea:	Etxeberria	Etxeberria
13, astelehena:	Ormazabal	Ormazabal
14, asteartea:	Ormazabal	Ormazabal
15, asteazkena:	Ormazabal	Ormazabal
16, osteguna:	Ormazabal	Ormazabal
17, ostirala:	Yudego	Yudego

### OKINDEGIA:

12, igandea: **BOUTIQUE DEL PAN**

**BARREN  
100.**

*zenbakia*

**SPAKIZUNAK**

*15, asteazkena*

**19,00 KirolBARREN**  
Kultur Etxean

*16, osteguna*

**19,00 Mahaingurua**

"Kazetarien eragina euskal  
gizartean"

**Moderatzailea:** Hasier Etxeberria.  
**Hizlariak:** "Amatiño" (ETB), Pello  
Zubiria (Argia), Odile Kruzeta  
(Euskadi Irratia), Martin Garitano  
(Egin).

Kultur Etxean

*17, ostirala*

**22,15 Zinea**

"Alargunen gailurra"  
Herriko Antzokian

## ZINEA

### La Pasion Turca

Desideria Olivanez ezkondu eta  
bitzita lasai bat hasten du,  
emoziorik gabekoa, sexuak  
esanahi erotikorik ez du eta  
maiatzuna bera hitz txikitzen  
idazten da bere bitzita sinplean.  
Egun batean, bere senarrari kasu  
egin eta Estambulera bidaiara  
egiten du. Han Yaman ezagutzen  
du eta bere bitzita erabat  
aldatzen da.

### Stargate

Jack O'Neil koronelak eta  
Daniel Jackson egiptologoak  
governu amerikarrarekin  
kolaboratu behar dute gogoz  
kontra. Governuak izkutuko  
proiektu bati ekin dio, gure  
zibilizazioaren benetako jatorria  
zein den adieraziko duen tresna  
misteriotsu bat aurkitu baitu.

# Kazetarien eragina euskal gizartean

BARREN

100.

zenbakia

## PARTAIDEAK

- L. A. Aranberri "Amatiño" (ETB)
- Pello Zubiria (Argia)
- Odile Kruzeta (Euskadi Irratia)
- Martin Garitano (Egin)

## MODERATZAILEA

- Hasier Etxeberria

Martxoak 16, osteguna  
Arratsaldeko 7etan  
KULTUR ETXEAN

ANTOLATZAILEAK: BARREN astekaria eta ELGOIBARKO IZARRA K.E.  
LAGUNTZAILEAK: Elgoibarko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia



# CAMBRIDGE

Examinations, Certificates & Diplomas

## ENGLISH AS A FOREIGN



UNIVERSITY OF CAMBRIDGE  
LOCAL EXAMINATIONS SYNDICATE

### Informazioa eta matrikulak

ELGOIBAR:	Kensington School of English	74 02 36
	Key Academia de Ingles	74 30 44
DURANGO:	CompuBit English Institute	94-620 20 20
ARRASATE:	Parlance	77 06 83
	Cim-Ahizke	79 01 32
BERGARA:	Espolon School of English	76 03 53
EIBAR:	Anglo-American	10 64 57
	Interidiomas	12 10 03
	Ukitze	70 25 59
	Link Idiomak	10 39 59
ONATE:	A & M School of English	71 61 37
	Cim-Ahizke	71 60 00
ONDARROA:	Howdy Academy	94-613 43 26

Matrikulak:  
martxoaren 6tik 16ra

### Azterketak eta datak

K.E.T. (Key English Test)	Ekainak 17
P.E.T. (Preliminary English Test)	Ekainak 17
F.C.E. (First Certificate English)	Ekainak 13
C.A.E. (Cambridge Advanced English)	Ekainak 15
C.P.E. (Cambridge Proficiency English)	Ekainak 14

TOKIA: ARMERIA ESKOLA (EIBAR)